

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Askoren soinu banda, bizi-bizian

Euskal Herriko Sukarrak ia 20 urteren bueltan bizirik jarraitzen du, eta horren erakusle da iaz Durangoko Plateruenan grabatu zuen kontzertu hau: 21 kantu, 70 minututik gora. Euren hastapenetan punk-rockaren eta heavyaren arteko muga gändiezina lehertu zuten, eta energia, teknika eta gogo handiarekin gazteriaren zati handi bat harrapatzea lortu zuten. Gerora, Mikel Gorosabel *Norton* taldeko gidariaren sormenaren ondorioz, hainbat estilo eta mutur lantzeko gai izan dira, beti dotoreziaz. Lan honetan apur bat denetatik dago: *Kasko gorriak* eta *Nerbixuak* adrenalineroak; *Lau teilatu* eta *Hamar urte gartzelan* hunkigarriak; edota atzoko eta gaurko kantu heavy eta punk-rockeroak. EH Sukarra hori guztia delako. Eta funtsean, gutako askorentzat, gure bizitzaren soinu bandaren zati bat ere bai.



Zuzenean
EH Sukarra

BARNE RECORDS

Iraupena: 74'57"
11,50 euro

MIKEL GOROSABEL - EH SUKARRA

«Taldearen lorpen handiena da hasi ginenetako hiruk jarraitzea, eta harremanari eustea»

Erraza izan da aukeraketa? Bigarren diskoko abestirik ez dago, *sui-generis* samarra zelako?

Bai. Hastapenetako batzuk berreskuratu ditugu, eta gaur egun jotzen ditugunei batu dizkiegu. Bi ikusle mota ditugu: hastapenetakoak eta azken urteotan eza-gutu gaituztenak. Bigarren diskoa kanpoan gelditu da, abesti pertsonalak eta luzeak direlako.

Hiru kontzertu grabatu, eta bakararra, Durangokoa, aukeratu duzue...

Santurtziko X-tremekoa, Sestaoko txosnetakoa eta Durangoko Plateruenakoa grabatu genituen, baina kantu guztiak Durangokotik hartu ditugu, soinu eta giro onena izan zuelako.

Hastapenetan punk-rockaren eta heavyaren arteko mugak apurtu zenituzten.

Ni punka entzuten hasi nintzen, eta gerora heavya deskubritu nuen. Lehenengo diskoa oso zuzena zen; eta bigarrenean esperimendu egin genuen. Gerora, taldearen soinua punk-rockean finkatu genuen. Baina, beti tartekatuta ditugu estiloak, askatasun handiarekin aritu gara rockaren barruan.

Aspaldiko arantza al zen zuzenekoa?

Orain zen unea. Nik Nortonklub daukat, eta kantu berriak egin beharrean pentsatu genuen zuzenekoa egitea. Gainera, erronka ere bazen, eta oso gustura gaude.

Lau teilatu aldarrikatzen jarraitzen duzue?

Bai. Lehenengo diskoan grabatu genuen eta nahiz eta sasoi batean errepertoriotik kanpo izan dugun, gure zuzenekoa egotea bidezkoena da. Bitxia da aspaldiko kantuak berreskuratzean guk ere sentsazioak berreskuratzen ditugula.

Zer du berezia EH Sukarrak hainbeste urte irauteko?

Gauzak egiteko gogoia dugun lagun taldea gara. Lorpen handiena da hasi ginenetako hiruk jarraitzea, eta harremanari eustea.

Zuen hitz gehienek gaurkotasun handia dute...

Bai, *Argi ibili, 10 urte gartzelan*... Gaur egun gauzak okerrago daude. Lehenengo diskoan hitzak oso zuzenak ziren; eta gerora, Asier Serranorekin pertsonalagoak ziren arren, beti izan dute kritika.

